



Azpeitiko Udala

ALKATETZAK 2019KO URTARRILAREN 14AN EMANDAKO EBAZPENA. HONEN BITARTEZ, AZPEITIKO UDALERRIAN ERREGIMEN OROKORREKO 8 ETXEBIZITZA TASATUAK ESLEITZEKO PROZEDURAN ONARTUAK ETA BAZTERTUAK IZAN DIRENEN BEHIN BETIKO ZERRENDAK ARGITARATZEN DIRA (BUSTINZURIKO ERREBALA 4N ETA DONE JAKUE 7N).

AURREKARIAK

Udal Batzarrak, 2018ko maiatzak 15ean egindako bilkuran erregimen orokorreko 8 etxebizitza tasatu eta beren trastelekuak, Azpeitiko Bustinzuriko Errebala 4n (4 etxebizitza) eta Done Jakue 7n (4 etxebizitza), esleitzeko oinarriak onartu zituen. Deialdiaren oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2018ko ekainaren 1ean eta 2018ko uztailaren 20an.

Oinarrien laugarren atalean **2018ko uztailaren 13ko** data zehaztu zen, indarrean dagoen araudian aurreikusitako eskakizunak betetzen zituzten pertsonak edo bizikidetz-unitateak, esleipen prozedura horretan parte-hartzea eskatzeko.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta oinarritzko baldintzak bete direla egiaztatatu ondoren, Alkatetzak 2018ko abenduaren 3ko Ebazpenaren bidez onartuak eta baztertutak izan direnen behin behineko zerrendak osatu ziren, eta, kasuan kasu, baztertzeko arrazoiak zein izan diren adierazita.

Zerrenda horiek Azpeitiko udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian erakutsi ziren, eta hamar egun balioduneko epealdia eman zen erreklamazioak aurkezteko.

Jendaurreko epealdi honetan erreklamazio-idatzi bat aurkeztu da. Hori Estrategia eta Hirigintza Batzordean baloratu da eta Alkatetza honek 2019ko urtarrilaren 11an ebaztu du.

Dagokikun deialdiaren 6. artikulua jasotakoaren arabera eta bertan jasotako edukiarekin, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak erakutsiko dira Azpeitiko udaletxeko iragarki taulan eta web orrian www.azpeitia.eus. Honekin batera zozketaren eguna, ordua eta lekua zehaztuko dira.

Eta eskumenari dagokionez, Toki Administrazioaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21. artikulua dioena ikusita (apirilaren 2ko 7/1985 Legea), Alkatetza honek ERABAKI DU:

Azpeitiko Bustinzuriko Errebala 4n (4 etxebizitza) eta Done Jakue 7n (4 etxebizitza) eraikitzeak diren erregimen orokorreko 8 etxebizitza tasatuak esleitzeko prozeduran onartuak eta baztertutak izan direnen behin betiko zerrendak argitaratzea; zerrenda horiek Ebazpen honen 1. eranskinean jasotzen dira hurrenez hurren.

Zozketaren datuak modu orokorrean argitaratuko dira Azpeitiko Udalaren iragarki taulan eta web orrian www.azpeitia.eus.

Ebazpen honen aurka honako errekurtsiak jarri ahal izango dira:

— Administrazioarekiko auzi errekurtsia Administrazioarekiko Auzietako Donostiako epaitegian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

— Berraztertze errekurtsia (aukerakoa) udaletxean, lehen aipatutako errekurtsia jarri aurretik, hilabete bateko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Azpeitian, 2019ko urtarrilaren 14an.- Alkateak.- Eneko Etxeberria Bereziartua.



The image shows an official stamp of the Azpeitia Municipality. The stamp is rectangular and contains the text "Azpeitia" and "ALKATEA" (Mayor). A handwritten signature in blue ink is written over the stamp.